

1.- AURREKARIAK

Enpresak Sortzen eta Garatzen Laguntzeko Elkarteak (aurrerantzean DEMA), agintzen zaizkion proiektuen eta jardueren premiei egoki erantzuteko asmoz, enpresak eta erakundeak kontratatatu behar izaten ditu bere langileen bidez egin ezin dituen hainbat lan egiteko.

DEMAk Lan eta Trebakuntza sailetik datozen funts publikoak kudeatzen ditu eta interes orokorra bilatzea du helburu. Horregatik beharrezkoa du bere kontratazioak Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Lege berriari egokitzea (urriaren 30eko 30/2007 Legea, aurrerantzean SPKL).

Honako jarraibide hauek arautzen dituzten eta **DEMAren Kontratugileen Profilean** argitaratuta dauden kontratuen esleipen-prozeduretan parte hartu nahi duten guztiek eskura izan behar dituzte.

Kontrataziorako barne-jarraibide hauek (aurrerantzean KBJ) DEMAren kontratu-esleipenen erregimena zehaztuko dute, **kontratazio publikoa agintzen duten honako printzipio hauei lotuz: publikotasuna, konkurrentzia, gardentasuna, konfidentzialtasuna, berdintasuna eta bereizkeriarik eza.**

2.- DEMAren IZAERA JURIDIKOA. KONTRATAZIORAKO JARRAIBIDEEN XEDEA ETA EDUKIA

DEMA irabazi-asmorik gabeko Elkarte pribatua da; SPKLren 3.1.h) artikulua zehazten duenaren arabera, sektore publikoaren kontratazio alorrean parte hartzen du eta Bizkaiko Foru Aldundiko Lan eta Trebakuntza Sailak finantzatzen du nagusiki.

SPKLren arabera, DEMA **administrazio publikoa ez den botere esleitzaila** da, honako hiru legezko baldintza hauek betetzen ditu eta.

- Berezko izaera juridikoa dauka.
- Premia orokorrei erantzuteko sortu da, eta ez industria- edo merkataritza-premiei erantzuteko.
- Administrazio Publikoak finantzatzen du nagusiki.

DEMA botere esleitzaila izateak, egiten dituen kontratazioen prozedurei ezarri beharreko zuzenbide-esparrua zedarritzen du eta, SPKLren 175. artikulua zehazten duenaren arabera, **kontratazioak egiteko barne-jarraibideak izan behar ditu finkatuta.**

Jarraibide horien helburua **DEMAk zer kontratazio-prozedurari jarraitu behar dien adieraztea da.**

3.- DEMAren ERREGIMEN JURIDIKOA KONTRATAZIO ALORREAN

DEMAk egiten dituen kontratuek **kontratu pribatu** izaera dute, SPKLren 20.1. artikulua arabera.

4.- KONTRATAZIO ORGANOA

DEMAren gerentzia da DEMAren kontratazio-organoa. Halere, DEMAren gerentziak **kontratuaren ardura hartuko duen pertsona bat izendatu ahal izango du** eta hari egokituko zaio kontratua gauzatu egiten dela

ikuskatzea, eta hitzartutakoa egoki burutzen dela bermatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzea eta jarraibideak ematea.

Baldintza-agiri bakoitzean esan berri dena argi agertuko da.

5.- KONTRATAZIORAKO BARNE-JARRAIBIDE HAUEK ZUZENTZEN DITUZTEN KONTRATAZIO-PRINTZIPIO OROKORRAK

DEMAk hirugarren batzuekin egiten dituen kostu handiko kontratuak bi izaera izan ditzateke: arauketa harmonizatuari lotuta dauden kontratuak, edo arauketa harmonizatuari lotuta ez dauden kontratuak. Arauketa harmonizatuari lotuta ez dauden kontratuak SPKLren 1. artikulua jasotzen dituen printzipioen pean gauzatuko dira, eta SPKLren 175. artikulua dioenaren arabera, esleipena honako printzipioen pean egingo da: **publikotasuna, konkurrentzia, gardentasuna, konfidentzialtasuna, berdintasuna eta bereizkeriarik eza.**

6.- KONTRATAZIO-PROZEDURA

Zenbatekoaren arabera, honako KBJ hauen pean egiten diren kontratazioak hiru atalasetan sailkatuko dira, eta horietako bakoitza kontratazio-prozedura bereiztuei lotuta egongo da. Atalase bakoitzari ezarriko zaizkion kontratazio-prozedurak ondoren zehaztuko diren hauek dira.

Atalase bakoitzean aipatzen diren zenbateko guztiak **BEZ gabekoak dira.**

6.1.- 1. ATALASEKO KONTRATUAK: ESLEITZE ZUZENA

1. Atalasea: Atalase honetan daude **balio zenbatetsia 18.000 €-koa edo txikiagoa** dutenak, kontratu-mota edozein delarik ere.

1. atalaseari dagozkion kontratuak **zuzenean esleituko dira.**

DEMAk **kontratazioaz arduratzen den pertsonak** enpresa bakarrari eskatu ahal izango dio eskaintza, eta **zuzenean esleitu ahal izango dio** berari.

Gerentziak enpresak emandako aurrekontua onartuz (fax-ez edo posta elektronikoz igortzea nahikoa izango da), edo egoki ikusten denean kontratua sinatuz, gauzatuko da kontratazioa. Ardura duen pertsonak egingo du tramitazioa, eta berak jaso eta ikuskatuko du eskatutako materiala edo lana.

6.2.- 2. ATALASEKO KONTRATUAK: HIRU AURREKONTUREN ESKAERA EDO IRAGARRI GABEKO PROZEDURA NEGOZIATUAK

2. Atalasea: Atalase honetan daude **balio zenbatetsia 18.000 € baino handiagoa eta 50.000 € baino txikiagoa edo berdina** dutenak, kontratua edozein motatakoa izanik ere.

2. Atalaseko kontratuak gerentziak esleituko ditu, **hiru aurrekontu eskatuta.** Zenbait kasutan, beharrezkoa balitz, iragarkirik gabeko prozedura negoziatura joko da.

Esleipena **hiru aurrekontu eskatuz** egiten denean, **ez** da beharrezkoa izango **baldintza-agiririk** egitea. Esleipena **iragarkirik gabeko prozedura negoziatuaren bidez** egitea erabakitzen bada, **baldintza-agiri** erraztua egingo da, honako KBJ hauetako 8. atalean agertzen denaren arabera. Prozedurak honako arau hauek bete beharko ditu:

1. Ahal den guztietan DEMAk kontratua egiteko gai diren gutxienez hiru enpresari egingo dio eskaintza, eskutitz bidez, posta elektronikoa bidez edo fax bidez, baldintza-agiria bertan erantsiz.
2. Kontratazioaz arduratzen den pertsonak eskaintzen konparaketa-aula bat egingo du eta esleipena abantaila handienak eskaintzen dituen enpresari ematea proposatuko du. Kontratua, baldintza-agirian ezarri denaren arabera sinatzen denean gauzatuko da.

6.3.- 3. ATALASEKO KONTRATUAK: PROZEDURA IREKIAK, ITXIAK, IRAGARKI BIDEZ EDO LEHIA-ELKARRIZKETAZ NEGOZIATUAK

3. Atalasea: Balio zenbatetsia **50.000 €-koa baino handiagoa** duten eta SPKLren 13. artikuluaaren arabera arauketa harmonizatuari lotuta ez dauden kontratuak dira.

Ondorioz, maila honetan sartuko dira, besteak beste, honako balio zenbatetsia duten kontratuak:

-5.150.000 euro baino txikiagoa, obra-kontratuak badira.

-206.000 eurokoa baino txikiagoa gainerako kontratuetan edo, bestela, zenbateko hau baino handiagoa izanik, SPKLren II. eranskineko 17. kategoriatik aurrera dauden zerbitzuak.

Kontratazio-organoak baldintza-agirian adierazi beharko du zein esleipen-prozedura aukeratu duen, kontratuaren ezaugarrien arabera eta ondoko paragrafoetan agertzen diren arauari lotuta:

Kontratuen Atalase honetan esleipenak egiteko, iragarki bidezko prozedura negoziatu arrunta erabiliko da, betiere SPKLren oinarrizko printzipioak, honako KBJ hauek zuzentzen dituztenak, errespetatuz.

Halere, honako kasu hauetan prozedura irekia edo itxia erabiltzea erabaki ahal izango da:

a) Kontratatu behar diren prestazioak zorrotz eta zehatz definituta daudenean eta, ondorioz, kontratazioari dagozkion alde teknikoak edo ekonomikoak negoziatzeko premiarik ez dagoenean. Eskaintza enpresa bakar bati egiteko aukera ere espresuki aipatuko da, arrazoi teknikoak edo artistikoak direla medio, edota eskusibae eskubideak direla medio, kontratua enpresari jakin eta bakar bati baino eskaini ezin zaionean.

b) Garrantzi ekonomiko berezia dela eta, arauketa harmonizatuari lotutako kontratuen zenbatekoetatik oso hurbil egonik, kontratazio-organoaren ustez prozedura irekia edo itxia honako KBJ hauen 5. atalean definitutako printzipioei hobeto lotzen zaienean.

Prozedura irekia edo itxia ezartzen den kasuetan, SPKLren 141. artikulutik 152. artikuluraino aipatzen diren aukerak ezarriko dira; ez, ordea, eskaintzaileei eskaini beharreko informazioaren epeei dagozkien puntuak, ez

eta parte hartzeko eskaerak edo proposamenak aurkezteko epeei dagozkienak ere. Horien ordez, iragarpenean edo baldintza-agirian zehaztuko dira ezarri beharreko epeak. Edonola ere, zehaztuko diren epeak egokiak izango dira, balizko edozein eskaintzailek ebaluazio egokia egin eta eskaintza bat aurkezteko astia izan dezan. Ez da derrigorrezkoa izango behin-behineko esleipenik egitea ere, eta kontratazio-organoak hala erabakitzen duenean baino ez da egingo. Aukera hori, dagokion baldintza-agirian agertuko da.

SPKLren 164. artikulua jasotzen dituen kasuetakoren bat gertatzen denean, lehia-elkarrizketa bidezko prozedura ezartzea erabaki ahal izango da. Kasu horretan, SPKLren 163. artikulutik 167 artikulura zehazten direnak ezarriko dira, aurreko paragrafoetan prozedura itxien eta irekien kasuan aipatu diren egokitzapen berdinak eginda.

Edonola ere, kontratazioaz arduratzen den pertsonak aurkeztutako eskaintzak jasoko ditu eta balorazio-txostena prestatuko du, horren araberrako esleipen-proposamena egiteko. Txostena, figura eskudun egokiak berrikusi eta onartuko du. Kontratastarentzat lotesleak diren agiriak erantsiko zaizkio kontratuari.

Kontratastaren hautaketa

Kontratuen esleipena DEMAren kontratastaren profilean argitaratuko da, kontratuaren izaera edo berezitasuna dela eta, besterik erabakitzen ez bada behintzat.

Kontratuak formalizatzea

Dagokion baldintza-agirian besterik jasotzen ez bada, DEMAK KBJri lotuta egiten dituen kontratuak honako aipamen hauek jaso beharko dituzte derrigorrez, SPKLren 26. artikulua jasotzen duenez:

- a) Alderdien identifikazioa.
- b) Sinatzaileek kontratua sinatzeko duten gaitasunaren egiaztapena.
- c) Kontratuaren xedearren definizioa.
- d) Kontratuari aplikatuko zaion legeriaren aipamena.
- e) Kontratuaren osagai diren dokumentuen zerrenda.
- f) Egiazko prezioa edo hura zehazteko modua.
- g) Prezioen berrikuspenari buruz erabakitzen dena.
- h) Kontratuaren iraupena edo burutzapenerako aurreikusi diren hasiera eta amaiera datak, bai eta luzapena edo luzapenak ere, halakorik ezarri badin bada.
- i) Prestazioa nola jaso, eman edo onartuko den.
- j) Ordainketa nola egingo den.
- k) Kontratua suntsiarazten duten kasuak.
- l) Kontratastari konfidentzialtasuna ezartzen bazaio, zenbaterainokoa eta noiz artekoa.

Kontratista hautatu eta beranduen hamar egunetara sinatuko da kontratua, baldintza-agirian edo eskaintzan beste epe bat zehaztu ez bada.

7.- GAITASUNA

7.1.- DEMArekin kontratuak egiteko gaitasun-alderdi orokorrak.

SPKLren 43. artikulua jasotzen duenaren arabera, DEMArekin edozein pertsona natural edo juridikok egin ahal izango ditu kontratuak, atzeritarrak zein espainiarrak izan, **jarduteko gaitasun osoa badute**, ez badute kontratatzeke galarazpenik, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa edo profesionala egiaztatzen badute, eta hala eskatzen den kasuetan, behar bezala erroldatuta badaude.

Ezin izango dute DEMArekin kontraturik egin SPKLren 49. artikuluan agertzen diren kasuetakoren batean dauden pertsonak.

Era berean, kontratuaren xedea den jarduera edo prestazioa egiteko exijitu ahal izango den enpresa-gaikuntza edo gaikuntza profesionala izan beharko dute enpresariak.

7.2.- Kontratatzeke gaitasunaren egiaztapena

Pertsona juridikoak diren enpresariak, jarduteko gaitasuna egiaztatzeke, enpresaren sorrera edo aldaketaren eskritura edo agiria, edo hala badagokio, estatutuak edo eraketa-agiria, aurkeztu beharko dituzte. Bertan agertu beharko dira jarduera arautzen duten legeak eta dagokion Erregistro publikoan egoki erregistratuta egon beharko dute, pertsona juridikoaren arabera.

Enpresariak kontratatzeke galarazpenik ez dutela egiaztatzeke, nahikoa izango da erakundeko arduradun batek hala dioen adierazpen bat egitea.

8. ENPRESARIAREN KAUDIMENA

8.1.- Kaudimen eskaera

1.- DEMArekin kontratuak egiteko, SPKLren 51. artikulua dioenaren arabera, kontratazio-organoak zehazten dituen **kaudimen ekonomiko, finantzario eta profesional eta tekniko gutxienezkoak badituztela egiaztatu beharko dute** enpresariak.

2.- Esleipen-iragarpenean agertuko dira eta baldintza orokorretan zehaztuko dira zein diren **kaudimeneko gutxieneko baldintzak eta hori frogatzeko eskatzen den dokumentazioa**; betiere, **kontratuaren xedeari lotuta** egon beharko dute eta haren arabera **proporzionalak** izan beharko dute.

3.- Kontratazio-organoak, eskaintzan edo parte-hartze eskaeran, prestazioa burutzeaz arduratuko diren langileen izenak eta prestakuntza profesionala zehatz ditzatela exijitu ahal izango die pertsona juridikoei.

4.- Kontratazio-organoak, baldintza orokorretan hala adieraziz, hautagai edo eskaintzaileei kaudimena edo sailkapena bermatzeko eskatzeaz gain, kontratua burutzeko baliabide material eta pertsonal nahikoa jarriko

duelako konpromisoa ere exijitu ahal izango die. Konpromiso horiek kontratuan erantsiko dira eta funtsezko betebeharrak izango dute.

5.- Beharrezko kaudimena egiaztatzeko, enpresaria beste erakunde batzuen kaudimenean eta bitartekoetan oinarritu ahal izango da, haiekiko duen loturen legezko izaera edozein delarik ere, kontratua burutzeko benetan baliabide horiek eduki badituela egiaztatzen badu.

8.2.- Egiaztatzeko bideak

Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala modu honetara egiaztatu ahal izango da:

- 1.- Sektore publikoko kontratuen SPKLren 64. artikulutik 68. artikulura aurreikusten diren dokumentuen artean Kontratazio-organoak zehazten dituen **dokumentuak eskainiz**.
- 2.- Kontratazio-organoak hala erabakitzen duenean, **enpresariaren erroldatzearen bidez**. Horretarako enpresariak antzeko beste kontratuak eskuratzeko kaudimena eskuratu izan duela bermatu beharko du, Estatuko lizitzaileen Erregistro Ofizialak emaniko egiaztagiria baten bidez.
- 3.- Kontratazio-organoak, SPKLren 64. artikulutik 68 artikulura zerrendatzen diren bermeak ez diren **beste kaudimen-berme batzuen bidez**.

9.- KONTRATUEN PRESTAKUNTZA

KBJk aipatzen dituen kontratuak prestatzeko, **zenbatekoa 50.000 €-tik gorakoa denean** baldintza-agiri bat egin beharko da. Baldintza-agiriak SPKLren 121.2 artikulua zehazten dituen edukiak jaso beharko ditu eta SPKLren 104. artikulua zehazten duena ere ezarri beharko da. Horrez gainera, kasu bakoitzean egoki den informazioa ere jasoko du baldintza-agiriak.

Hau da, **aruketa harmonizatuari lotuta ez dauden kontratuen prestakuntzan**, SPKLren 121.2 artikulua edukia kontuan hartuz, Baldintza-agirietan **honako aipamen hauek egin beharko dira nahitaez**, kontratazio-organoak egoki ikusten dituen beste batzuk ere egon badaitezke ere:

- a) Kontratuaren oinarritzko ezaugarriak.
 - b) Aldaketak nola onartuko diren.
 - c) Eskaintzak nola jasoko diren.
 - d) Esleipena emateko zer irizpide erabiliko diren.
- 3) Lizitzaileek edo esleipena jaso duenak zer berme eskaini beharko dituzten.

Aruketa harmonizatuari lotuta ez dauden kontratuak prestatzeko, KBJ hauetako 9.3.2. atalean (2. atalaseko kontratuak) aipatzen diren iragarki gabeko prozedura negoziatu bidez esleitzen direnean, baldintza-agiri erraztua erabili ahal izango da.

9.2. Iragarpena

Kontratu maila edozein delarik ere, **balio zenbatetsia 50.000 €-tik gorakoa denean, lizitazioari buruzko informazioa ezarri beharko da DEMAren kontratugilearen profilean**. Halere, beharrezkoa ikusten denean, iragartzeko beste bide batzuk ere erabili ahal izango dira.

Lizitazio-iragarkian honako informazioa agertuko da:

- a) Erakunde esleipen-emaiaren izena.
- b) Kontratuaren xedearen deskribapen laburra.
- c) Kontrata esleitzeko prozedura.
- d) Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua.
- e) Esleipenerako oinarri izango diren irizpideak zehazten dituen dokumentuaren aipamena.
- f) Kontratuari buruzko informazioa eta dokumentazioa nola eskura daitekeen.
- g) Eskaintzak aurkezteko lekua eta azken data.

Edonola ere, kontratuaren ezaugarriek eta egoerak hala eskatzen dutenean, iragarpenaren edukia zabaltzeko eta kontratugilearen profilean informazio osagarria gehitzeko aukera egongo da.

Aurreko paragrafoetan adierazitakoaren kalterik gabe, posible izango da iragarpenik ez egitea SPKLren 154. artikulutik 159.era prozedura negoziatua erabiltzeko aipatzen diren kasuetan, Lege beraren 161. artikulua araberaren arabera iragarpen beharrik ez duten kasuetan, edo SPKLren 154. artikuluko b), d) eta e) ataletan jasotzen diren kasuetako bat gertatzen denean.

10. ARRAZIONALIZAZIO TEKNIKORAKO ARAUAK

Kontratuak arrazionalizatzeko eta esleipena ordenatzeko, DEMAk enkante elektronikoak egin ahal izango ditu, esparru-akordioak egin, sistema dinamikoak artikulatu, eta obren, zerbitzuen eta horniduren kontratazioa beste zerbitzu, elkarte edo erakunde batzuetan zentratu, SPKLren 132. eta 178. artikulutik 191.era aipatzen denaren arabera. Kasuan kasu, honako KBJ hauen ondoriozko egokitzapenak ezarri ahal izango dira.

11. OPERADORE HOMOLOGATUEN ZERRENDA

DEMAk arauketa harmonizatuari lotuta ez dauden kontratuetarako homologatze-sistema bat eduki ahal izango du. Hori sortzeko prozedura gardena erabiliko da eta bertan izena eman ahal izango dute, beren borondatez, maiztasunez erabiltzen diren prestazioetan interesa duten enpresa eta profesional guztiek.